

# Asisko gutuna

2019ko abendua

2. printzipioa. Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

134. zenbakia

Eguneroko jira-bueltatan nahasturik, ez zaigu guri ere arnasa hartu eta barnerantz sartu ahal izateko tarteen nostalgiarik sortzen? Jesusek bilatzen zituen horrelako tartek, Frantziskok ere bai. Guk ere ez ote ditugu sakonean bizi ahal izateko horrelako tartek berreskuratu beharko?

## Gogoetarako gaia

### *Nostalgia eta itxaropena*

Denok dugu, modu batera edo bestera, bizitzako uneren batean garrantzitsua izan den norbaiten oroitzapen maitagarria: lagun bat, gure gurasoak, irakasleren bat ... Zer ez genuke emango pertsona horrekin berriro egoteagatik, hitz egiteagatik, hari buruz jakiteagatik! Agian jada ezinezkoa izango da, urruti dagoelako, edo hil egin delako. Baina esker oneko nostalgia hori geratzen da.

Badago modu bat nahiko genukeen bezalako presentzia fisikoa suposatzen ez duen pertsona horrekin harremana mantentzeko. Harreman hori gertatzen da elkarrekin bizi izan genuenarekiko, markatu gaituen harreman horrekiko leialak garenean. Litekeena da batzuek fidelotasun hori burugogorkeria gisa irakurtzea, oroitzapen hutsera murrizte gisa, hura gertatu zela, bai, baina harremana jada ezinezkoa dela ez onartzeko. Baina ez, pertsona hari fidelotasuna gordetzen zaio norberaren onena bizirik mantentzeko, harreman hark piztu baitzuen gudan orain garena. Horrela, fidelotasun horri eusten ez badiogu, geure benetakoena traizionatzen dugu.

Bizi izandako harreman haren nostalgia moduko horrek, gaur egun gure bizitza markatzen jarraitzen duenak, harreman horrek indarrean jarraitzen duela adierazten du, nahiz eta beste era batetara. Iraungi izan balitz, gure egungo bizitzak ez lioke inolako erreferentziarik egingo harreman hari. Ez, ezin dugu ukatu nostalgiak biziarazten gaituela, eta zentzuz eta pozez biziarazi. Are gehiago, bizi izandako hura etorkizunean emango zaigunaren esperantzara zabaltzen gaitu, nahiz eta orain ezin jakin noiz eta nola.

Zenbat markatzen gaituzten gure bizitzak taxutu dituzten harremanek! Zer esanik ez Jainkoarekiko harremana eman denean. Jainkoa ortzemugatik desagertu den gizarte sekularizatu honetan, Jainkoa saminez oroitzen duen pertsona asko dago, guk uste baino gehiago. Eta ez inguruko sinesgabetasun-giroaren aurkako erreakzio gisa, baizik eta beren bizitzetan gertatu zaien hoberenaren itxaropen leial gisa baizik.

## Bibliako pasarteak: Est 14,1.3-5.12-14

Ester erreginak, arrisku larri hartan, Jaunarengana jo zuen babes bila. Eta otoitz hau egin zion Jaunari: «Ene Jauna, gure Erregea, bakarra zara zu! Lagun iezadazu, bakarrik bainago, ez baitut zu beste laguntzailerik arriskuan nagoen une honetan. Txikitandik entzun izan dut gurasoen etxean zuk, Jauna, nazio guztien artean Israel hautatu zenuela, eta arbaso guztien artean gure arbasoak aukeratu zenituela zeure ondare egiteko betiko, eta esandako guztia bete izan duzula beraien alde. Orain, ordea, bekatu egin dugu zure aurka. Zuzena zara, Jauna! Oroit zaitez gutaz, Jauna, ager zakizkigu indartsu gure atsekabe-aldian. Eta niri, emadazu kemena, oi jainkoen Errege, aginte oro duzun horrek. Ipini nire ahoan hitz egokiak, lehoiaren aurrean egongo naizenean. Libra gaitzazu horien eskutik zeure esku indartsuaz. Eta niri, lagun iezadazu, bakarrik bainago, ez baitut zu beste laguntzailerik. Zuk dena dakizu.

## Frantziskotar espiritualtasuna

Nahiz eta aita aintzatsua jadanik Jainkoaren aurrean graziaz betea zegoen eta gizon-ema-kumeen artean bere ekintza santuez distiratzten zuen, oraindik ere gauza bikainagoei ekitea pentsatzen ari zen beti. Biziki irrikatzen zuen lehen garaietako apaltasunera itzultzea, eta bere maitasun neurrigabeagatik itxaropenean alai, bere gorputza, indarren azkenera iritsia bazen ere, antzinako morrontzara erakartzea zuen asmo. Eta bere gaixotasunagatik lehen-go zorrotasuna bigundu beste aukerarik ez zuenean, honela esaten zuen: "Has gaitezen, anaiok, Jainko Jauna zerbitzatzeko, orain arte ezer gutxi aurreratu baitugu". Ez zuen uste helburura iritsia zenik, eta berritzeko asmo santuari etsi gabe eutsiz, beti hasteko prest zegoen. Berrito legendunak zerbitzatzera itzuli nahi zuen, eta garai bateko mespretxua berrito jasatera. Asko eta asko ikusten zituen aginte-postuen irrikaz. Min hartzen zuen, zenbaitek, bere lehenengo jokabidea utziz, aurkikuntza berriak medio hasierako xalotasuna ahaztua zuelako. Asko nahigabetzen zuen, behin bere gogo osoz goiko xedeen atzetik zebiltzanak orain beheko gauza kaskarretara makurtu izanak. (Zell 103-104)

## Otoitza

Jainko, ene Jainko, lehia biziz nabilkizu bila,  
zure egarri da nire barrena,  
zure irrika naizen guztia,  
lur lehor, agor, urik gabea bezala.

Egon nadila horrela santutegian zuri begira,  
zure indarra eta ospea ikusiz.  
Bizia baino ederrago zure maitasuna!  
Nire ahoak ospatuko zaitu;  
bai, bizitza guztian bedeinkatuko zaitut,  
zuri dei eginez altxatuko eskuak.

Jakirik gozoenez bezala aseko naiz,  
eta nire ezpainen poz-oihuka goretsiko zaituzte.

Gauzez ohean zuregan dut gogoa,  
zuri otoitzean igarotzen ditut orduak.  
Bai, zu izan zaitut laguntzaile;  
kantuz ariko naiz pozik zure hegalen itzalean.  
Zuri itsatsia nago oso-osorik,  
eta zure eskuinak eusten niri.

(63. Salmoa)

## Gutuneko azken hitzak

"Zuretzako egin gintuzun, Jauna, eta gure bihotza ezin ase da Zu topatu arte"(San Agustin)


### 2019ko abenduko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate abenduko erreferentzia guztiak:

1 Mt 24, 37-44	8 Lk 1, 26-38	15 Mt 11,2-11	22 Mt 1, 18-24	29 Mt 2,13-15.19-23
2 Mt 8,5-11	9 Lk 5,17-26	16 Mt 21,23-27	23 Lk 1, 39-45	30 Lk 2, 36-40
3 Lk 10, 21-24	10 Mt 18, 12-14	17 Mt 1,1-17	24 Lk 1, 67-79	31 Jn 1,1-18
4 Mt 15, 29-37	11 Mt 11, 28-30	18 Mt 1, 18-24	25 Jn 1, 1-18	
5 Mt 7, 21.24-27	12 Mt 11, 11-15	19 Lk 1, 5-25	26 Mt 10, 17-22	
6 Mt 9, 27-31	13 Mt 11, 16-19	20 Lk 1, 26-38	27 Jn 20,2-8	
7 Mt 9,35-10,1.5-8	14 Mt 17, 10-13	21 Lk 1, 39-45	28 Mt 2,13-18	

Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)



  
Asis Sarea

646 21 48 96

Abenduko otoitzaldia  
26an izango da.